

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Pertsona guztiei zuzenduta dagoen arren, gure produktu hau bereziki adinekoei eta bihotzeko arazoak dituztenei egokitzen zaie. Gure bezeroaren ezaugarri nagusiak hauek dira: osasunaz kezkatutik dauden pertsonak, eguneroko jardueretan segurtasuna eta kontrola nahi dituztenak, eta teknologia erraz eta erabilgarria bilatzen dutenak. Bezero mota hau aukeratu dugu produktuaren funtzionaltasunek argi eta garbi laguntzen dietelako: bihotz-maiztasuna kontrolatzea, arrisku-egoerak prebenitzea eta osasunaren jarraipen erraza egitea.



Gure bezeroek segurtasuna nahi dute, lasaitasunean pentsatzen dute, osasunarekin lotutako arriskuak ikusten dituzte, eta askotan kezka sentitzen dute euren egoera fisikoaren inguruan. Egunerokoan, ariketa fisikoa egiten dute, paseoan ibiltzen dira edo euren osasuna kontrolpean edukitzea bilatzen dute, eta horretarako produktu sinple baina fidagarria behar dute.

Merkatuaren estrategiari dagokionez, guk merkatu kontzentratuko estrategia erabiliko dugu: publiko orokorrera iritsi nahi dugun arren, arreta berezia jarriko dugu arrisku handiagoa duten taldeetan (adinekoak eta aurrekari medikoak dituztenak). Horrela, gure komunikazioa eta produktuaren balio-proposamena modu eraginkorragoan bideratu ahal izango ditugu.



Beraz, gure produktua batez ere osasun-kontrola behar duten pertsonentzat, adinekoentzat, eta bihotzeko arazoak izan dituztenentzat bideratuko da; hala ere, pertsona guztiek erabil dezakete, euren ongizatea eta segurtasuna hobetzeko.